



TOLOSAKO
UDALA

2026IGBA0028

TOKIKO GOBERNU BATZARRA

2026.06.30

Alkatea:

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Bertaratutako zinegotziak:

Miren Yosune Sanz Vidal

Cristina Pelaez Errazquin

Aitor Aguirresarobe Murgui

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita seiko ekainaren hogeita hamarrean, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

B) EBAZPEN ATALA

Ez da bertaratu:

Goiuri Eceiza Arandia

Ander Figuerido Zubiria

1. puntua. Onartzea, hala badagokio, D.R.C.k aurkeztutako berraztertze errekurtsua ezestea.

Espedientearen kodea: 2025PDBS0002

Udal idazkaria:

Sara Berasategui Fuertes

C)) INFORMAZIO ETA KONTROL ATALA

2. puntua. Dekretu hauen berri ematea.

Kontu-hartzailea:

Marta Alonso Sarasola

2026/1926 Dekretua: 2026/14 faktura zerrenda.

2026/1925 Dekretua: 2026/25 faktura zerrenda.



1. **PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, D.R.C.K AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOA EZESTE.**

IKUSIRIK

Lehena.- 2026ko maiatzaren 5eko Tokiko Gobernu Batzarrak Tolosako udaleko agente lehen plaza bat betetzeko hautaketa-prozesuko oinarriak eta deialdia onartu zituen.

Bigarrena.- 2026ko maiatzaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren oinarriak. Era berean, hilabeteko epea eman zen oinarrien aurkako berraztertze errekurtsoa ezartzeko.

Hirugarrena.- 2026ko ekainaren 4ko 2026-8350 sarrera-erregistro bidez, Denis Ruiz Civicok errekurtsoa ezarri zuen ondorengo bi gaiekin:

1. Euskarazko 3. hizkuntza-eskakizuna merezimenduen atalean baloratzea eskatzen du.

Lizentziatura edo masterrak orain artean ez direla baloratu esaten du eta gehienez ere karguarekin zerikusia dutenak baloratzea eskatzen du.

KONTUAN HARTURIK

Lehena.- Deialdiaren oinarriak 2026ko apirilaren 21eko negoziazio-mahaian negoziatu ziren eta ondoren 2026ko maiatzaren 5eko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu ziren.

Bigarrena.- Hizkuntza-eskakizunari dagokionez, betekizun gisa bete beharreko hizkuntza-eskakizuna bakarrik eskatzea erabaki zen. Hau da, lanpostuen zerrendaren baitan derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna den B2 B2 maila eskatzen da hautaketa-prozesuan.

Hirugarrena.- Merezimendu gisa lan-esperientzia eta formakuntza osagarria bakarrik baloratzea erabaki zen.

Formakuntza osagarriari dagokionez, deitutako plazen zereginekin lotutako prestakuntza osagarria bakarrik baloratzen da. Ondorioz, baloratuko diren gradu, master eta graduondokoak lanpostuaren funtzioekin zerikusia izan behar dute.

Epaimahaiak ahalmena izango du gradu, master edota graduondoko horiek funtzioekin zerikusirik duten edo ez erabakitzeko.



Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, alkateak emandako ahalmenez baliatuta aho batez

ERABAKI DU

Lehena.- Denis Ruiz Civicok ezarritako berraztertze errekurtsoa ezestea.

Bigarrena.- Hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri espezifikoak bere horretan uztea, hau da:

1. Hizkuntza-eskakizunari dagokionez, B2 B2 maila betekizuntzat hartzea eta C1 C1 maila ez hartzea baloragarritzat.
2. Plazaren zereginekin lotutako prestakuntza osagarrian gradu, master edota graduondokoak baloragarritzat hartzea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

2. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA.

2026/1926 Dekretua: 2026/24 faktura zerrenda

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontu Hartzailetza eta Diruzaintza Saileko zinegotzi delegatu Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koa, zinegotzi delegatuari emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

Alkateak aintzatetsiko dituela legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2026eko honako faktura-zerrenda hau:

24. zenbakia duena, 273,95 eurokoa.



TOLOSAKO
UDALA

2026IGBA0028

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatu honek

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

24. zenbakia duena, 273,95 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte

Sara Berasategui Fuertes



TOLOSAKO
UDALA

2026IGBA0028

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2026/1925 Dekretua: 2026/25 faktura zerrenda.

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontu Hartzailetza eta Diruzaintza Saileko zinegotzi delegatu Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koa, zinegotzi delegatuari emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

Alkateak aintzatetsiko dituela legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2026eko honako faktura-zerrenda hau:

25. zenbakia duena, 322.864,45 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatu honek

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

25. zenbakia duena, 322.864,45 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.



Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 09:15ean.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026IGBA0028-2026/06/30 AKTA/ACTA 2026/06/30 ()